

LEIO ERTZEAN

Ez dakit zelan, goiz argi baten
Agertu ziñan nire auzoan...
Leio azpiko karel zokoan
eder bai eder zendun emoten.

Euzkiak goitik zeuntzun ikutu
Ta Zuk muin zuriz lernal biotza;
Ez dakit zelan, barren bikoitza
Zendun edegi zorten ta kimu.

Geroztik ortxe zaukadaz eder
Aize egoetan gora ta beera;
Argi-maitale, mindu gupera,
Illiunde orduz poz-irria ler.

Leio ertzean gurutz besoak
So dagitzut nik goiz eta arrasti;
Soaren truke daustazuz josi
Maitezko ezten garrez eloak.

Ta gaur joranez zuri begituz,
«Etzaitut maite?», esan daustazu;
Eskuz makur-az dautzut nik kimu,
Ezpan biekaz beterik mosuz!

Mosuaren kar! Biotz-barnean
Bistu daustazu maitezko miñal
Ta arrezkeroan, geldo egiña,
Soka naukazu leio ertzean.

Igotz